

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Indarrean sartu da gizarteratze-errenta arautzen duen foru-legea

Berritasunen artean, 24 hilabetetik 30era luzatzen du errenta jasotzeko aldia eta eskuratzeko baldintzak malgutzen ditu.

Jueves, 05 de diciembre de 2013

Ostegun honetan, abenduak 5, indarrean sartu da Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen [36/2013 Foru Legea](#). Berritasunen artean, errenta kobratzeko gehienezko aldia 30 hilabetera luzatu eta errenta berritzeko aukera ematen du, eta errenta eskuratzeko baldintzak malgutzen ditu.

Ostegun honetan argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta, besteak beste, honako berritasun hau jasotzen du: prestazio ekonomikoa besterenezin bihurtzen du, beraz, errentaren zenbatekoak ezingo dira eman berme gisa, eta ezingo zaio beste inori lagapen, konpentsazio edo bahitura gisa ere eman, aplikagarria den araudi orokorrarekin bat etorritz. Hala, alderdi horri lotuta egon daitezkeen zalantza guztiak argitu dira.

Halaber, prestazioa eskuratzeko baldintza orokorre eutsiko zaie, baina Nafarroan, 24 hilabetez gutxienez, modu jarraituan bizitokia izan beharko da eta ez da kontuan hartuko gehienez bi hilabetez kanpoan egotea, egonaldi horiek norberaren edo hurbileko senideen osasun-arazoengatik, lana bilatzeko edo genero-indarkeriarekin erlazioatutako arrazoiengatik egiten direnean.

Bestalde, baldintza horiek betetzeko orduan Gizarte Politiketako kontseilariak emandako foru-aginduaren bidez salbuespenak egiteko aukera mantenduko da, horietarako premia dagoen egoeretan. Salbuesteko aukera hori errenta eskuratzeko baldintza guztietan dago, eta ez, orain arte bezala, adinari edo diru-sarrerei dagokienez bakarrik.

Salbuespenak

Baldintza orokorrak betetzeko beharraren salbuespenei dagokienez, familia-unitatea pertsona bakarrak osatzen duenean, Gizarteratze-errentaren zenbatekoa lanbidearteko gutxieneko soldataren % 85 izango da. Aurrez zehaztutako gainerako zenbatekoak bere horretan geratuko dira.

Halaber, Gizarteratze-errenta jasotzeko gehienezko aldia 24 hilabetetik 30era luzatu da. Beste salbuespen batzuen artean, gehienezko aldia Gizarte Politiketako kontseilariak emandako foru-arau bidez adierazitako salbuespen-egoeretan luzatu ahal izango da. Hala ere, Foru Legean bertan jasotzen dira salbuespenak egiteko moduko egoera horietako batzuk, beraz, lege-mailako arauak dira.

Zehazki, aldia luzatzeko aukera dago kasu hauetan: 16 urtetik

beherako seme-alabak izanik lana egiteko eragozpenak dituzten familiak, lana egitea eragozten duten osasun-egoera larriak dituzten familiak, gizarteratze eta lanerako prozesu trinkoa burutzen ari den kidedun familiak, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten 60 urtetik gorako pertsona eskatzaileak edo bizi-egoera oro har hondatuta duten eta familiaren eta hurbilekoen laguntzarik ez duten pertsonak direnean.

Azkenik, Foru Legean jasotako Gizarteratze Akordioaren arauak osatu dira eta prestazio-eskaerak izapidetzeko prozedura arautu da. Azken horri esker, bi hilabeteko epean egingo da eskaeren balorazioa eta administrazio-prozeduraren arauetan aurreikusitako epean egingo da ebazpena, eta, hemendik aurrera, administrazio-isiltasunak baietz esan nahiko du azken epe horren barruan ebazpenik jaso ezean.